



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urriaren 24a

113. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako lan elkartuko kooperatiba sozietate txikiei buruzkoa. Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen eta atxiki gabeko Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriei buruzkoa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (8. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa-programa bat presta dezan seme-alabek gurasoei egindako erasoen kasuetarako. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egungo hezkuntza-politika alda dezan eta bultza dezan eskola-eredu publiko bat anitza, inklusibo eta ez segregatzailea, baterako hezkuntzakoa, ingurune sozialean inkardinatua eta behar dituen baliabideez hornitua. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda ditzan ikasleak Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeari buruzko araudia eta ikastetxeen eragin eremuak ezartzen dituen araudia. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez ditzan diruz lagundu ikasleak sexuaren arabera ikasgela desberdinetan bereizten dituzten ikastetxe pribatuetan ematen diren irakaskuntzak. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan eskaintza publiko bat dei dezan irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetan lanpostuak hornitzeko. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Haur Hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza eskaintza publiko bat ezar dezan, halako moduz non bermatuko baita herritar guztiek irakaskuntza horiek jaso ahal izatea kalitate, ekitate eta iraunkortasun-berme baldintzetan. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Europar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko merkataritza-akordiorako proiektua Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzeta programa publiko-pribatu bat bultzatzea dezan, Iruñeko aireportuaren jarduera sustatzeko. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2015/2016 ikasturterako plan oso bat presta eta aurkez dezan, “motxila digitala” programa foru erkidegoko ikastetxeetan ezartzeko. Mozioa erretiratzea (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri sar ditzan Gizarte Politiketako Departamentuaren jarduketa-ildo nagusietan. Mozioa erretiratzea (18. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gobernuak duen iritziari buruzkoa, Ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gunerekin eta mugatutako beste gunerekin batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna arautzeko Foru Lege proposamenaren gainean. Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin du (19. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik urriaren 15ean onetsi gabe dagoen 2015erako aurrekontuen aurreproiektua. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, administrazio publikoen aurrekontuetako proiektu eta funtsezko ildoen gainean AIReFek eginiko txostenari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (20. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamena hori presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu behar harko zaizkio.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.**

### ZIOEN AZALPENA

Azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra erregulatu zuen, halakotzat jota pertsona publiko edo pribatuei dirua eskuratzea, betekizun hauek betetzen direnean:

a) Dirua eskuratzea onuradunen edo hirugarren pertsonen zuzeneko kontraprestaziorik gabe.

b) Dirua emateko baldintza izatea xede jakin bat bete dadila, edo proiekturen bat gauzatu, jardueraren bat egin nahiz jokabide berezi bat har dadila (xede horiek jada burutuak izan daitezke nahiz oraindik burutu gabeak), edo inguruabar jakin batzuk gertatzea; eta onuradunak bete egin behar ditu betebeharrak material eta formalak.

c) Finantzatzen den proiektu, ekintza, jokabide edo egoeraren helburuak izan behar du onura publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat sustatzea edo xede publikoren bat sustatzea.

Aipatutako testuan jasotzen dira Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek Estatuko oinarritzko legedian sartutako aldaketak. Lege horren abiapuntua, zioen azalpenean aipatzen den bezala, baliabide publikoen erabileran efizientziarik handiena lortzeko kezka berezia da, eta horretarako, hain zuzen ere, kudeaketa-prozedura batzuk ezartzen dira, diru-laguntzen ematea eragin zuten bestelako xedeetarako desbideratzeak eragozte aldera.

Ezinbesteko helburu horrek inspiratutako testuak irabazi asmorik gabeko entitateei aplikatzean, arazoak ekarri ditu kasu batzuetan, halako entitateek ez baitute helburu ekonomikoak lortzera bideratutako egiturarik, baina, aldi berean, jarraitutasuna izateko funts publikoen laguntza behar baitute.

Arazo horiek honakoan dautza: batzuetan, legearen malgutasunik eza kaltegarri gertatzen da entitateek baliabideen kudeaketa efizientea egiteko, diruz lagundutako jarduera aurrera ateratzen dutenean aurreikusitakoa baino baliabide gutxiagorekin; horrenbestez, entitateek beren ekarpena handitu behar izaten dute, eta kasu horietan, galerak izaten dituzte alde batetik eta bestetik, eta beren bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jartzen da, ondorioz.

Lege aldaketa honek konpondu nahi ditu egungo arauak eragindako distortsioak, bereziki hirugarren sektorea deitzen dena osatzen duten horrelako entitateei eragindakoak, eta horretarako bi artikuluko gehitzen ditu.

Lehenengoak aukera bat jasotzen du, diru-laguntzaren xedea eskatzaileak garatu beharreko jarduerak finantzatzea den kasuetan, aurkeztutako eskaerak berregiteko, noiz eta azkenean diru-laguntzarako proposatu den zenbatekoa txikiagoa denean onuradunak egindako eskaeran agertzen dena baino.

Bigarrenaren helburua da aukera ematea baliabideen erabilera efiziente batetik heldu diren gerakin inbertitugabeak erabiltzeko, behin diru-laguntzaren helburuak beteta, diruz laguntzeko modukoak diren beste jarduera batzuen finantzaketarako.

**Artikulu bakarra.** Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen aldaketa.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeari aldaketa hauek egiten zaizkio:

Bat. 20. bis artikuluko berria gehitzen da, honako edukia duena:

“20. bis artikulua. Eskaerak berregitea.

1. Diru-laguntzaren xedea denean eskatzaileak garatu beharreko jarduerak finantzatzea, eta instrukzioa egin duen organoak proposatzen duen diru-laguntza txikiagoa denean aurkeztutako eskaeran ageri dena baino, onuraduna premiatu ahalko da, oinarri arautzaileetan hori aurreikusi

bada, eskaera berregin dezan, konpromisoak eta baldintzak doitze aldera ematekoa den diru-laguntzaren arabera.

2. Berregindako eskaerak instrukzioa egiten duen organoaren adostasuna lortu duenean, eskaera hori, egindako jarduera guztiekin batera, organo eskudunari igorriko zaio, ebazpena eman dezan.

3. Nolanahi ere, eskaerak berregiten direnean, diru-laguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatu beharko dira, bai eta eskaera edo eskariak direla-eta ezarritako balorazio-irizpideak ere.”

Bi. 28. bis artikuluko berria gehitzen da, honako edukia duena:

“28. bis artikulua. Inbertitu gabeko gerakinak.

1. Diru-laguntza eman zeneko helburuak bete ondoren eta baliabideak efizientziaz erabiltzearen poderioz gerakin inbertitugabeak baldin badaude, horren barne direla diruz lagundutako jarduerari aplikatu ez zaizkion balizko finantza-etekinak, zilegi izanen da diru-laguntza eman duen organoari eskatzea, oinarri arautzaileetan hori aurreikusten denean, haiek erabili ahal izatea izaera bereko edo antzeko izaerako beste jarduera batzuetan; hain zuzen ere, oinarri arautzaile horien arabera diruz laguntzeko modukoak izan eta onuraduna egiten ari den jarduerak.

2. Eskaeran zehaztuko da amaitutako edo bidean dagoen –kasuan kasu– proiektuaren helburuen zabalpena, bai eta horri dagokion aurrekontua ere.

3. Diru-laguntza ematen duen organoak ebazpena emanen du, gerakina aplikatu behar zaion diru-laguntza emateari buruzko ebazpena aldatuz, edo deskribatutako gerakinak itzul daitezzen erabakiz.”

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

## Foru Lege proposamena, Nafarroako lan elkartuko kooperatiba sozietate txikiei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko Manu Ayerdi Olaizola jaunak Foru Lege proposamena aurkeztu dute, Nafarroako lan elkartuko kooperatiba sozietate txikiei buruzkoa, eta presako prozeduraz izapidatzea eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Ele-dunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako lan elkartuko kooperatiba sozietate txikiei buruzko Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori presako prozeduraz izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta hari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## Foru Lege proposamena, Nafarroako lan elkartuko kooperatiba sozietate txikiei buruzkoa

### ZIOEN AZALPENA

2013-2015 urteetarako Nafarroako Ekonomia Sozialeko Plan Estrategikoak, Moderna Planaren esparrukoak, helburu du enplegua gehitzen laguntzea, ekonomia sozialeko enpresa berriak sortuz.

Foru lege honen xedea da mikroenpresen eraketa sustatu eta bultzatzea, lan elkartuko kooperatiba-elkarteen eredupean, Nafarroaren hazkunde-rako eta enpresa-ehunduraren etorkizuneko garapenerako oinarri gisa, kalitatezko enplegua sortzeko eredu bat baita.

Planteamendu hau Europar Batasunetik bultzatu izan diren orientabide eta politikekin bat dator, zeinek elkarren osagarri diren bi beharriari erantzuten baitiote. Batetik, enpresa txikien sorrera bultzatzea, bereziki hamar langile bitarteko mikro-enpresak, eta horretarako sozietate-formula errazak ezartzea, enpresa txikiaren errealitateari hobeki egokituak.

Bestetik, orokorrean, araudiak ez du egiten enpresen tamainaren arabera tratamendu-desberdintasunik, eta, horren ondorioz, arauak ezartzen dituen betekizunak betetzea zail egin dakieke enpresa txikienei. Mikroenpresen kasuan, beren izaera eta inguruabarrak direla eta, izaera administratiboko betekizunak ez dira batera lagungarri gertatzen; alderantziz, oztopo handi bat izaten dira haien sorrerarako.

Azken urte hauetan, Europar Batasunak eta Estatuak merkataritza-alorreko lege-aldaketa batzuk egin dituzte, enpresa-ekimen berriak abian jartzeko bete beharreko baldintzak sinpletze aldera, betiere bilatuz enpresa txiki eta ertainen eraketan eragin berezia duten aldaketak, zeren eta halako enpresak funtsezkoak baitira enplegu-sorrerarako.

### 1. artikulua. Kontzeptua.

1. Kooperatiba sozietate txikia lehen graduko kooperatiba sozietatea da, lan elkartukoa, eta bere araubide juridikoa foru lege honek ezartzen du, kooperatiba sozietateen barruko espezialitate gisa.

2. Kooperatiba sozietate txiki bat eratzeko, Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legeari jarraituz eraturako kooperatiba sozietate baten estatutu sozialak foru lege honetara egokitzeko, edo kooperatiba ez den sozietate bat kooperatiba sozietate txiki bihurtzeko, sustatzaileek edo kasuko organo sozialak sozietateari kooperatiba sozietate txikiaren nolokotasuna espresuki egotzi beharko diote.

3. Kooperatiba sozietate txikia iraupen mugagabeko bi langilek, gutxienez, eta hamarrek, gehienez, osatuko dute, lanaldi osoan nahiz partzialean.

4. Kooperatiba sozietate txikiak foru lege honetan xedatuaz arautuko dira, eta, osagarri gisa, Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legeaz.

### 2. artikulua. Eraketa.

1. Kooperatiba sozietate txikia eratzeko edo beste entitate bat kooperatiba sozietate txiki bihur-

tzeko nahiz horretara egokitzeko, eskritura publikoa egin eta sozietatea Nafarroako Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da. Inskripzio horren indarrez hartuko du nortasun juridikoa eratu berriko kooperatiba sozietate txikiak.

2. Kooperatiben arloan eskuduna den Nafarroako Gobernuako departamentuak kooperatiba sozietate txikienezko estatutu sozialen eredu orientagarri bat onetsiko du, eta interesdunen eskura jarriko du kooperatiba sozietate txikiak eratzten dituztenean. Eredu horrek jasoko ditu, gobernu-, kudeaketa- eta ordezkari-tza-organoa taxutzeari dagokionez, foru lege honek ezartzen dituen hautabide ezberdinak.

3. Estatutu sozialen eredu orientagarria aldaketarik sartu gabe erabiltzeak berarekin ekarriko du estatutu horiei buruzko alde aurretiko kalifikazioaren izapidetik salbuetsita egotea. Kasu horretan, eratze-eskritura kalifikatzeko eta inskribatzeko epea ez da izanen berrogeita zortzi ordutik gorakoa.

4. Entitate horien izenean ezinbestean agertuko da "Kooperatiba Sozietate Txiki" adierazpena edo horren laburdura den "Koop. Soz. Txikia"

**3. artikulua.** Besteren konturako langileak eta iraupen mugatuko bazkide-langileak kontratatze mugak.

1. Kooperatiba sozietate txikiek, beren nortasun juridikoa hartu eta zazpi urteko gehieneko epe batez, iraupen mugatuko bazkide-langileak izan ahalko dituzte, baina halakoen kopurua ezin izanen da izan iraupen mugagabeko langileena –lanaldi osokoak nahiz partzialekoak– baino handiagoa.

2. Zazpi urteko epe horretan berean, kooperatiba sozietate txikian besteren konturako kontratu mugagabea duten langileak ez dira bost baino gehiago izanen, salbu eta enpresaren behar objektiboengatik kopuru hori gainditu behar bada, gehienez ere hiru hilabetez. Epe hori gainditu ahal izateko, baimen zioduna eskatu beharko zaio, epe mugatu baterako, Nafarroako Gobernuko kooperatiben arloko departamentu eskudunari, eta azken horrek hogeita hamar eguneko epean ebatzi beharko du eskaria; administrazio-isiltasunaren kasuan, baimena eman egin dela ulertuko da.

3. Aurreko idatz-zatietan aipatzen den zazpi urteko epe hori iraganda, Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legeak ezarritakoak izanen dira kooperatiba sozietate txikiak besteren konturako kontratu mugagabedun langileak eta iraupen jakin bateko bazkide-langileak kontratatze mugak.

4. Aurreko idatz-zatietan jasotako kasuetan, behin beren nortasun juridikoa hartu zutenetik zazpigarren urtea iragan denean, kooperatiba sozietate txikiek kooperatiben arloko Nafarroako Gobernuko departamentu eskudunean frogatu beharko dute Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legeak arlo honi buruz ezarritako betekizunak betetzen dituztela.

**4. artikulua.** Bazkideen ekarpenak zedarritzea.

Bi bazkidek osatutako kooperatiba sozietate txikiaren kasuan, bazkide bakoitzaren ekarpenak ehuneko 50ekoak izanen dira.

Kooperatiba sozietate txikiek hasierako derrigorrezko ekarpenak exiji diezazkiekete besteren konturako langileei, sozietatean sartu ahal izateko iraupen mugagabeko bazkide-langile bezala edo iraupen mugatuko bazkide bezala, eta ekarpen horiek, bazkide mota bakoitzaren kasuan, izanen dira, gehienez ere, sozietatera azken sartutako bazkide-langileak guztira eginiko derrigorrezko ekarpenen parekoak, dagozkion eguneratzeez gainera. Edonola ere, eguneratze horiek ezin izanen dira handiagoak izan ekarpenak egin zirenetik Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako Nafarroako KPlak aplikatuz ateratzen dena baino.

**5. artikulua.** Organo sozialak.

1. Hauek izanen dira kooperatiba sozietate txikiaren organo sozialak: kooperatibaren batzar nagusia eta gobernu-, kudeaketa- eta ordezkari-tza-organoa, –pertsona bakarrekoa izan daiteke, hau da, administratzaile bakarrekoa; pertsona anitzekoa, administrari solidario edo mankomunatuak dituen; edo kolegiatua, kontseilu errektorea duena–.

2. Batzar nagusiaren araubidea, foru lege honetan xedatuta ez dagoen orotan, Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legean ezarritakoa da.

3. Gobernu-, kudeaketa- eta ordezkari-tza-organoa kooperatiba sozietate txikiko bazkide-langileek osatuko dute beti, eta foru lege honetan eta Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legean ezarritakoaren arabera arautuko da.

4. Kooperatiba sozietate txikien gobernu-, kudeaketa- eta ordezkari-tza-organoa, kontseilu errektorearen modalitatea hautatzen denean, guxtienez ere bi pertsonak osatuko dute, eta kasu horretan lehendakari eta idazkari karguak izanen dituzte.

5. Karguek bost urte iraunen dute, eta epe hori iraganda, haietarako pertsona berak hautatuko dira, edo beste izendapen bat eginen da.

6. Kontseilu errektorearen erabakiak modu baliodunean emandako botoen gehiengo soilaz hartuko dira, halakotzat kontatu gabe bilkurara joan diren kontseilarien abstentzioak. Lehendakari kargua duenaren botoak ebatziko ditu berdinketak.

7. Artikulu honetako laugarren idatz-zatian jasotako kasua gertatzen bada, idazkariak aukera izanen du Batzar Nagusia biltzeko deialdia egiteko, baldin eta lehendakariak ez badu deialdia egin bazkide batzuek (gutxienez, boto guztien % 20 ordezkatzeko dutenak) egindako deialdi-eskaera jaso ondorengo hogeitun egunetan. Nolanahi, horrek ez du ezertan kaltetzen lehendakariaren kontra erantzukizun-akzioaz baliatzea.

8. Kooperatibako bazkide guztiak gobernu-, kudeaketa- eta ordezkaritza-organoko kide direnean, ez da kontu-hartzailerik izendatu beharko.

#### **6. artikulua.** Estatutu sozialak egokitzea.

1. Kooperatiba sozietate txikiak iraupen muga gabeko langile-bazkideen gehieneko kopurua gainditzen badu sei hilabete baino gehiagoz, estatutu sozialak egokitu beharko ditu Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legean ezarritakora.

2. Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 Foru Legearen babesean sortutako lan elkartuko kooperatiba sozietateren batek kooperatiba sozietate txikiaren forma hartu nahi badu, eta arau honetan horretarako finkatu diren betekizunak betetzen baditu, bere estatutuak lege honen xedapenetara egokitu beharko ditu.

**Lehen xedapen gehigarria.** Agiri elektronikoko bateratua.

Prozedura eta tresna telematikoen garapenak hori bideratzen duenean, Nafarroako Gobernuak

behar diren neurriak hartuko ditu agiri elektronikoko bateratu batek aukera eman dezan kooperatiba sozietate txikiak eratzeko, haien abian jartzeko eta haien aholkua emateko; halaber, hitzarmenak eginen dira haien funtzionamendu hobea lortzen lagun dezaketen erakunde, administrazio eta sozietateekin.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Ekintzaileen arretarako guneak.

Kooperatiben arloan eskuduna den Nafarroako Gobernu departamentuak Nafarroako kooperatiba sozietate txikiak sortzeko ekintzaileen arretarako gune izaera emanen die Nafarroako Foru Komunitateko jarduketa-esparrua duten irabazi asmorik gabeko entitateei, eta gune horietan arreta ematen egonen diren pertsonen ezaugarri teknikoak eta lanbide-profila finkatuko ditu.

Lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikagarria izan arte, Nafarroako kooperatiba sozietate txikiak sortzeko ekintzaileen arretarako guneek izaera hori aitortzen dien ebazpen administratiboa esleitzen zaizkien jarduerak eginen dituzte.

Doakoak izanen dira Nafarroako kooperatiba sozietate txikiak sortzeko ekintzaileen arretarako guneen zerbitzu guztiak.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Zerga-araubidea.

Kooperatiba sozietate txikiei aplikatzekoa izanen da Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legean lan elkartuko kooperatibentzat ezarritako araubidea, eta 3. artikuluan aipatzen den zazpi urteko epean aplikatuko dira artikuluko 2. idatz-zatian aurreikusitako mugak, 9/1994 Foru Legeko 7. artikuluko 3. idatz-zatian adierazitako ordez.

**Foru Lege proposamena, Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriei buruzkoa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea aldatzen duena.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Foru lege proposamen honi zuzenketak aurkezteko epea **2014ko azaroaren 3ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea: "Foru Lege proposamena, Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriei buruzkoa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari

buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea aldatzen duena". Aipatu foru lege proposamena 2014ko ekainaren 26ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa-programa bat presta dezan seme-alabek gurasoei egindako erasoen kasuetarako.**

*AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarduketa-programa bat presta dezan seme-alabek gurasoei egindako erasoen kasuetarako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa-programa bat presta dezan seme-alabek gurasoei egindako erasoen kasuetarako.

Zioen azalpena

Adingabeen Fiskaltzaren oroitidazkiak honako bilakaera hau jasotzen du, Nafarroan seme-alabek gurasoen aurka egindako erasoen kasuei dagokienez:

– 2007: 30 kasu.

– 2008: 21.

– 2009: 45.

– 2010: 65.

– 2011: 63.

– 2012: 42.

– 2013: 45.

Fiskaltzak berak eraso horiek honela baloratzen ditu oroitidazkietako batean:

“Delitu-tipo hori egitea bereziki kezagarria da; izan ere, antza denez, gure gazteak jarrera zeharo onartezinak beretzen ari dira, indarkeria familia-esparrutik desagerrarazteko lege-erreformak eta kanpainak gorabehera. Kasu ia-ia guztietan, beren bizitzarekin ase ez diren adingabeak ziren; haien ustez, gurasoen betebeharra da asetzea ez soilik haien premiak, ezpada haien apetak ere, eta ez daukate inolako eragozpenik indarkeria fisikoa edo psikologikoa baliatzeko, beren helburuak lortzearen”.

Familia-indarkeria mota horren ezaugarrietako bat da, adituen iritzi orokortuaren arabera, egoera erreal guztietatik oso-oso gutxi direla salaketa judizial bat dakartenak. Adituek horri ematen dioten izena da “ezkutuko epidemia”.

Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak Nafarroan orain dela gutxi antolatutako jardunaldiei esker ezagutu ahal izan dira indarkeria mota horri buruzko datu berriak. Adituek ohartarazten dutenez, handitu egin dira kasu errealak, erregistro ofizialetan jasotakoan aldean; diotenez, administrazioek eta botere publikoek egoera horiei modu egokian erantzun behar diete.

Etxeko indarkeria mota hori, halaber, gorakada gradualeko prozesu baten bidez garatzen da; horrenbestez, administrazioaren aldetiko prebentzio-jarduna beharrezkoa, egokia eta eragingarria iruditzen zaigu.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du administrazio publikoen jarduketara programa bat taxutu dezan (Nafarroako Gobernuko departamentuak –esate baterako, Gizarte Politikak, Hezkuntza eta Lehendakaritza, Justizia eta Barnea–, justizia administrazioa, eta abar), seme-alabek gurasoen aurka baliatutako

indarkeria kasuei aurre egiteko eta erantzun egokia emateko, besteak beste ondoko neurriak jasoko dituen: jarduketa protokolo bat, profesionalentzako prestakuntza, eta ukituentzako informazioa, bitartekaritza, laguntza eta aholku-ematea.

Iruñean, 2014ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egungo hezkuntza-politika alda dezan eta bultzatzen dezan eskola-eredu publiko bat anitza, inklusibo eta ez segregatzailea, baterako hezkuntzakoa, ingurune sozialean inkardinatua eta behar dituen baliabideez hornitua.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bere egungo hezkuntza-politika alda dezan eta bultzatzen dezan eskola-eredu publiko bat anitza, inklusibo eta ez segregatzailea, baterako hezkuntzakoa, ingurune sozialean inkardinatua eta behar dituen baliabideez hornitua.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Estatuko Gobernuak eta bereziki Nafarroako Gobernuak bultzatu duten eskola-antolamendua ezaugarri bat izan da, batez ere azken hamar urteotan, ikastetxeak eta ikasleak zenbait ezaugarriren arabera sailkatzea: jatorria, sexua, erlijioa, familien maila sozioekonomikoa, etnia, eta abar.

Hiriguneetan, zehazki, ikasle-kontzentrazioak sortu dira hainbat ikastetxetan, halako moduan non eskola-populazioa ikastetxeetan banatu den aintzat hartu gabe ez familien ingurune fisiko eta sozialetiko hurbiltasunari buruzko irizpideak, ez sozializaziokoak, ez ingurunearekiko interakziokoak, ez elkarbizitzakoak, ez gizarte-kohesiokoak. Eskola-antolamendu hori eraendu eta eraentzen duten irizpideek botere-taldeen interes partikularrei erantzuten diete batez ere, hezkuntza berezitu bat nahi dutenak eskola jardunbideekin eta edukiekin zenbaitetan inolako zerikusirik ez daukaten gizarte-talde jakin batzuen eskakizunak asetzeko.

Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoak ikastetxeen eta ikasleen sailkapenean jartzen du azpimarra, eta, halatan, saihestu egiten du hezkuntzaren izaera konpentsatzailea eta sozializatzailea, eta apustu egiten du eskola-antolamendu segregatzaile eta merkantilista baten alde, hezkuntza-premiei eta ikasleen interesei arrotz zaizkien bestelako interesen mesedetan, haien sozializazioari eta ingurumen sozial eta naturalarekiko integrazioari dagokionez.

Bestalde, Hezkuntza Departamentuaren eskolatzeko-politika eta eskola-antolamendua sustatzen ari diren eskolatzeko-erantzaren eta -eskariaren antolamendua eta hezkuntza-azpiegituren politika ez datoz bat hezkuntza-sistema publiko batean sustatuko diren aukera-berdintasun, hezkuntza-konpentsazio, ikasleen sozializazio, bizikidetasun eta eskolaren eta ingurunearen arteko inkardinazioarekin.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere egungo hezkuntza-politika alda dezan eta bultzatu dezan eskola-eredu publiko bat anitza, inklusibo eta ez segregatzailea, baterako hezkuntzakoa, bere hurbileneko ingurune sozialean inkardinatua eta behar dituen baliabide guztiez hornitua, zertarako eta etorkizuneko gizarte kohesionatuago bat, bidezkoagoa eta, hortaz, eskola-populazioak etorkizuneko gizartearen kide aktiboa den aldetik dituen hezkuntza-premiei erantzuna emanen diena garatzen laguntzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio azpiegiturei, baliabide publikoen

hornikuntzari eta eskola-antolamenduari buruzko hezkuntza-politika bat gara dezan, Nafarroako irakaskuntza publikoa bultzatu eta lehenetsiko duena guztientzako hezkuntza-aukera berdintasunaren eta hezkuntza-konpentsazioaren berme-emaile gisa.

3. Nafarroako Parlamentuak familiak animatzen ditu beren seme-alabak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eskolatu ditzaten, bermatzen dituelako kalitatezko hezkuntza, denak bizikidetasunean eta bizikidetasunerako sozializazioa, zein ere diren ikaslearen edo haren familiaren jatorria, erlijioa, sexua, ahalmena nahiz beste edozein inguruabar individual.

Iruñean, 2014ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda ditzan ikasleak Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeari buruzko araudia eta ikastetxeen eragin eremuak ezartzen dituen araudia.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alda ditzan ikasleak Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeari buruzko araudia eta ikastetxeen eragin eremuak ezartzen dituen araudia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Gobernuek bultzatu duten eskola-antolamenduen ezaugarri bat izan da, batez ere azken hamar urteotan, ikastetxeak eta ikasleak zenbait ezaugarriren arabera sailkatzea: jatorria, sexua, erlijioa, familien maila sozioekonomikoa, etnia, eta abar.

Hiriguneetan, zehazki, ikasle-kontzentrazioak sortu dira hainbat ikastetxetan, halako moduan non eskola-populazioa ikastetxeetan banatu den aintzat hartu gabe ez familien ingurune fisiko eta sozialetiko hurbiltasunari buruzko irizpideak, ez sozializazioak, ez ingurunearekiko interakzioak, ez elkarbizitzaioak, ez gizarte-kohesioak. Eskola-antolamendu hori eraendu eta eraentzen duten irizpideek botere-taldeen interes partikula-

rrei erantzuten diete batez ere, hezkuntza berezitu bat nahi dutenak gizarte-talde jakin batzuentzat.

Testuinguru horretan, Hezkuntza Departamentuaren eskolatzeko politika eta eskola-antolamendua sustatzen ari diren eskolatzeko eskaintzaren eta eskariaren antolamendua eta hezkuntza-azpiegituren politika ez datoz bat hezkuntza-sistema publiko batean sustatuko diren aukera-berdintasun, hezkuntza-konpentsazio, ikasleen sozializazio, bizikidetasun eta eskolaren eta ingurunearen arteko inkardinazioarekin.

Beste alde batetik, hezkuntza-azpiegitura publikoaren gabeziak agerikoak dira; izan ere, hezkuntzaren arloko azpiegiturak, bereziki eskualde eta herri batzuetakoak, ez diote erantzuten eskolatzeko adineko populazioaren hazkunderari, ezta horietako eskolatzeko beharrezanezi ere, bai toki faltagatik bai hezkuntza arloko eraikin berrien beharrezagatik edo egungo instalazioen gabeziengatik.

Hezkuntza-azpiegiturari eta eskolatzeko buruzko egungo politikak deserrotzea bultzatzen du, neska-mutikoak ingurunean errotzea bultzatu ordez. Neska-mutikoei sozializatzen eta gainerakoekin harremanetan jartzen lagundu ordez, diskriminatzen, bereizten, banatzen eta pertsonalizatzen laguntzen du. Eskola auzoan eta ingurunean inkardinatzen lagundu ordez eta eskolaren eta erkidegoaren arteko interakzioa erraztu ordez, ikastetxeak –bereziki, pribatuak– beren ingurune hurbiletik zeharo bereizten dira.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du alda ditzan ikasleak Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeari buruzko araudia eta ikastetxeen eragin eremuak ezartzen dituen araudia, halako moduan non araudi horiek ikasleen sozializazioa eta integrazioa bultzatuko dituen eskola-antolamendu bat sustatuko baitute, ikasleak beren etxetik hurbilen dagoen ikastetxean eskolatzeko dituen, eta zuzenduko duena ikasleak ikastetxe jakin batzuetan kontzentratzea ikaslearen edo haren familiaren jatorriaren, erlijioaren, sexuaren, ahalmenaren nahiz beste edozein inguruabar indibidualen arabera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio onbideratu dezan ikastetxe publikoak eraiki, berritu eta handitzeko politika, halako moduan non urgentziaz ekinen baitie ikastetxe berrien obrei, konponketei edo handitzei, instalazioak urriak diren auzo, herri edo hiri guztietan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio aurrekontuaren eta antolamenduaren aldetik lehentasuna eman diezaien ikastetxe publikoei, halako moldez non ikastetxe publikoaren sarea hezkuntza zerbitzuaren bizkarrezurra izanzen baita Nafarroan.

Iruñean, 2014ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez ditzan diruz lagundu ikasleak sexuaren arabera ikasgela desberdinetan bereizten dituzten ikastetxe pribatuetan ematen diren irakaskuntzak.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bazarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez ditzan diruz lagundu ikasleak sexuaren arabera ikasgela desberdinetan bereizten dituzten ikastetxe pribatuetan ematen diren irakaskuntzak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Nafarroako Gobernuaren itun-politika oinarrituta egon da ekimen pribatuko ikastetxe guztiekin hitzarmenak egitean; halatan, ikastetxe-sare bikoitza eratu da, zeinean ikastetxe publikoen sarea eskaintza pribatuaren mende gelditu baita –eta, hortaz, talde sozial eta enpresa jakin batzuen interesen mende–.

Eskaintza publikoa handitu beharrean, hezkuntza-hitzarmenak ugaritzen dira, eta interes partikularrei lotutako ekimen pribatuen garapena sustatzen da. Halatan, adibidez, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen

uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatzen duen urriaren 19ko 17/2012 Foru Legeak debekatu egiten du hezkuntza-hitzarmenak egitea, baldin eta kasuko ikastetxeak sexuaren arabera bereizten baditu ikasleak. Halere, Hezkuntza Departamentuak lege hori indarrean sartu aurretik sinatutako hitzarmenak mantendu ez ezik, berri ere egiten ditu bukatzen direnak. Halaber, arian-arian ugaritzen dira itundutako unitateak.

Politika horrek familia eta talde sozial jakin batzuen interesak lehenesten dituen eskola-antolamendu bat bultzatzen du, hezkuntzaren helburuen kaltetan; alegia, alderdi formalak lehenesten ditu, funtsezko alderdien aldean.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio ez ditzan diruz lagundu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxe pribatuetan ematen diren irakaskuntzak, urriaren 19ko 17/2012 Foru Legean xedatutakoa betez, zeinak aldatzen baitu uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea, Batxilergoa, gradu ertaineko heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio ituna ken diezaien ikasleak erlijioaren, sexuaren, gaitasunaren nahiz ikaslearen edo haren familiaren beste edozein inguruabarren arabera hautatzen dituzten ikastetxe pribatuei.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio ez ditzan ugaritu itundutako unitateak titulartasun pribatuko ikastetxeetan.

Iruñean, 2014ko urriaren 15ean.

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan eskaintza publiko bat dei dezan irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetan lanpostuak hornitzeko.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da lan eskaintza publiko bat dei dezan irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetan lanpostuak hornitzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Azken bost urteotan modu kezagarrian murriztu da irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetako plantilla.

Hezkuntzaren arloan gastu publikoa arrazionalizatzeko neurri buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuan eta Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuan ezarritako murrizketen aplikazioak berekin ekarri du ikastetxe publikoetako plantilla drastikoki murriztea eta ezegonkortasuna handia izatea, funtzionario kopurua jaistearen ondorioz.

Alde batetik, Nafarroan aldi baterako murrizketa ez-aginduzkoak –esaterako, irakasleen irakasordutegia eta ratioak handitzea– aplikatu dira, eta gaur egun ere mantentzen dira.

Erretiroen ordezkatze-tasari dagokionez, ez da egin lan eskaintza publikorik ezta legegintzaldi osoan gertatutako erretiroen % 10erako ere, legeak horretarako aukera ematen bazuen zuen ere.

Azken lau urteotan 800 erretiro inguru hartu dira, eta hainbat lanpostu hutsik gelditu dira lekualdatze-lehiaketen ondorioz; 2012-2013 ikasturtean, adibidez, sartu zirenak baino 101 irakasle gehiago irten ziren Nafarroatik.

Horrek ezegonkortasun handia eragiten du ikastetxeetako plantilletan, plantillak murrizteko baliatua izateaz gain.

Azken egunotan, Estatuko Gobernuak iragarri du % 50 igoko dela ordezkatze-tasa.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkezten du:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan eskaintza publiko bat dei dezan 2015aren hasieran, irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetan lanpostuak hornitzeko, erretiroak direla-eta sortutako lanpostu hutsen gutxienez ere % 50 eta lekualdatze-lehiaketa bidez sortutako guztiak beteko dituen.

**2.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio bertan behera utz ditzan Hezkuntzaren arloan gastu publikoa arrazionalizatzeko neurri buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretutik Nafarroako Foru Komunitatean aplikatu diren aldi baterako neurriak.

Iruñean, 2014ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Haur Hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza eskaintza publiko bat ezar dezan, halako moduz non bermatuko baita herritar guztiek irakaskuntza horiek jaso ahal izatea kalitate, ekitate eta iraunkortasun-berme baldintzetan.**

*IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Haur Hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza eskaintza publiko bat ezar dezan, halako moduz non bermatuko baita herritar guztiek irakaskuntza horiek jaso ahal izatea kalitate, ekitate eta iraunkortasun-berme baldintzetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Une honetan, 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza-zikloko ikasleentzako hezkuntza publikoaren eskaintza ez dago bermatuta ez aurrekontuaren ez antolamenduaren aldetik. Ez dago eskaintza ekitatiborik ere, Nafarroako herri guztietan familiei

ahalbidetuko diena beren seme-alabak eskolatzea hezkuntza-etapa honetan berdintasun-baldintzetan, eta ez dago lurralde-konpentsaziorako neurri zehatzik ere.

Hezkuntza Departamentuak ez du bere gain hartzen 0tik 3 urtera bitarteko zikloko hezkuntza-eskaintza antolatzeke erantzukizun zuzena, eta udalak dira erantzun bat eman behar izan diotena neska-mutiko horien eskolatzeko eskubideari.

Ez da onargarria 0tik 3 urtera bitarteko haur eskola publikoak udal bakoitzaren aurrekontu-baliabideen edo Nafarroako Gobernuak urtez urte ezartzen duen diru-laguntzaren mende egotea.

0tik 3 urtera bitarteko Haur Hezkuntzako zikloaren eskaintza eta eskari guztia arautu beharra dago; eta, hezkuntza izaerako etapa bat den aldetik, Hezkuntza Departamentuari dagokio hori egitea.

Horregatik, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Haur Hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza eskaintza publiko bat ezar dezan, halako moduz non bermatuko baita herritar guztiek irakaskuntza horiek jaso ahal izatea kalitate, ekitate eta iraunkortasun-berme baldintzetan, hezkuntza etapa hori sartuz Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publikoen sarean.

Iruñean, 2014ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Europar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko merkataritza-akordiorako proiektua.**

### *BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Europar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko merkataritza-akordiorako proiektua.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Europar Batasuna eta Estatu Batuak Merkataritzarako eta Inbertsiorako Elkarte Transatlantikoa izeneko ari dira negoziatzen gaur egun. Merkataritzako akordio hori –ingelesezko sigletan, TTIP– merkataritzaren esparrutik askoz ere harantzago doa, eta inpaktu handi eta atzeraezina izanen du, batik bat osasunean, elikaduran, lanean, produktuen segurtasunean, ingurumenean, lan-eskubideetan... Aldaketa sakinak eragin litzake esparru horietako guztietako araudiak ezartze aldera erakunde demokratikoak erabiltzen ditugun moduan ere, eta, hortaz, herritarren eskubideei eraso egin.

Auziaren garrantzia gorabehera, Europar Batasunaren negoziatzaileek ezkutukeriaz dihardute negoziazioaren norainokoari eta akordioak lekeen inpaktu errealari dagokienez; alegia, urratzen ari dira herritar orori bere izenean zer negoziatzen ari diren jakiteko eskubidea.

Bukatzeo adierazi behar dugu TTIPk irismen handiko aldebiko merkataritza-akordio mundumailako lasterketa sustatuko duela, merkataritzako aldeaniztasuna azpizanez. Hau da, bloke ekonomiko aurkariak sor litezke, halako moduan non herrialderik ahulenek eta pobreenek arau batzuk bete beharko bailituzkete, zeinetan inolako eragina izateko modurik izan ez duten, mehatxupean egonen bailituzte mundu mailako lankidetzeta eta ahuldu eginen bailirateke merkataritza globaleko sistemaren erreformarako ekimenak, helburu dutenak erronka global komunei aurre egiteko modua hobetzea, bereziki klima-aldaketari eta ingurumenaren babesari dagokienez.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duten parlamentu-taldeek ondoko erabaki proposamena aurkezten dute:

**1.** Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Europar Batasuna eta Estatu Batuak negoziatzen ari diren akordio-proiektua.

**2.** Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du parte hartzen duen foro guztietan aintzat har eta defenda dezan Europar Batasuneko estatu kide guztietan erreferenduma egin behar dela Europar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko merkataritza-akordio baterako proposamen orori buruz, proposamena berretsi baino lehen.

Iruñean, 2014ko urriaren 16an

Foru parlamentariak: Víctor Rubio Martínez, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano eta José Miguel Nuin Moreno



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaren programa publiko-pribatu bat bultzatzearen, Iruñeko aireportuaren jardueraren sustatzeko.**

### *ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lankidetzaren programa publiko-pribatu bat bultzatzearen, Iruñeko aireportuaren jardueraren sustatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaren programa publiko-pribatu bat bultzatzearen, Iruñeko aireportuaren jardueraren sustatzeko.

Iruñeko aireportuan bidaiari kopurua etengabe ari da jaisten azken urteotan. Instalazioa 500.000 pertsona inguruk erabili zuten 2007an; 2013an, berriz, 159.000 erabiltzaile inguru izan zituen.

AENA-Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioak terminal berri bat jarri zuen zerbitzuan 2010eko azaroan: 12.400 metro koadro dira, urtean 1,1 milioi bidaiari arte artatzeko modua ematen dutenak. Dotazioen arloko hobekuntzak urte horretako maiatzean hasi ziren, pistak handituta, eta 2012an bukatu ziren, kontrol-dorre berria ireki zenean.

Inbertsio horiek ahalbidetzen dute hegazkin handiagoek erabili ahal izatea Iruñeko aireportua, era horrek erraztu egiten du ibilbide berriak irekitzea.

Halere, terminal berri batek eskaintzen dituen erabilgarritasuna eta aukerak ez datoz bat, une honetan, instalazioen erabilera txikiarekin. Egoera horrek instituzio publikoen inplikazio handiago bat eskatzen du, eta, aldi berean, beharrezkoa da entitate pribatuen parte-hartzea.

Helburua ezin da beste bat izan: nafar herritarrei Espainiarekiko eta Europarekiko konexioak hobetzea eta, aldi berean, inbertsio, enplegu eta turismo aukerak handitzea Foru Komunitatearentzat.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abian jar dezan entitate publikoaren eta pribatuen arteko lankidetzaren programa bat, jarduketa eta sustapen plan bat ahalbidetuko duena, Iruñeko aireportuaren jarduna handitzeko.

Iruñean, 2014ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2015/2016 ikasturterako plan oso bat presta eta aurkez dezan, “motxila digitala” programa foru erkidegoko ikastetxeetan ezartzeko.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen 2015/2016 ikasturterako plan oso bat presta eta

aurkez zezan, “motxila digitala” programa foru erkidegoko ikastetxeetan ezartzeko, eta 2014ko irailaren 26ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri sar ditzan Gizarte Politiketako Departamentuaren jarduketa-ildo nagusietan.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen zen-

bait neurri sar zitzaizen Gizarte Politiketako Departamentuaren jarduketa-ildo nagusietan, eta 2014ko urriaren 3ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Gobernuak duen iritziari buruzkoa, Ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna arautzeko Foru Lege proposamenaren gainean.**

*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak duen iritziari buruzkoa, Ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna arautzeko Foru Lege proposamenaren gainean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osasuneko kontseilari Vera andreak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia "Ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna arautzeko Foru Lege proposamenari" buruz, zeina Parlamentu honetan izapidetzen ari baita 8-14/PRO-00016 kodearekin?

Iruñean, 2014ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

**Galdera, jakiteko zergatik urriaren 15ean onetsi gabe dagoen 2015erako aurrekontuen aurreproiektua.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik urriaren 15ean onetsi gabe dagoen 2015erako aurrekontuen aurreproiektua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek 8-14/PES-00162 zenbakiko espedientean egindako galderari erantzunez, Nafarroako Gobernuak zioen urriaren 15a zela aurrekontuen aurreproiektua aurkeztu eta Ekono-

mia eta Gizarte Kontseiluari igortzeko aurreikusitako data.

Hori dela-eta, haxe jakin nahi dut:

- Zergatik ez da onetsi gaur, urriaren 15a, aurreikusita zegoen bezala, 2015erako aurrekontuen aurreproiektua?

Iruñean, 2014ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

## **Galdera, administrazio publikoen aurrekontuetako proiektu eta funtsezko ildoen gainean AIREFek eginiko txostenari buruzkoa.**

**MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, administrazio publikoen aurrekontuetako proiektu eta funtsezko ildoen gainean AIREFek eginiko txostenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

- Parlamentari honek jakin nahi du ea Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen AIREFek egindako "Administrazio publikoen aurrekontuen proiektuei eta lerro nagusiei buruzko txostena" dela-eta, eta informazioa jaso nahi du txosten horretan adierazitako baldintzen betetzeari buruz.

Iruñean, 2014ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro